

Bokazioen aldeko otoitza

Artzain Onari

Jesus Jauna, Artzain Ona,
huts egiten ez duen itxaropena eta gure bizitzaren oinarri eta zentzua:
gure elizbarrutiko gazteen alde otoitz egiten dizugu.
Zuk ezagutzen dituzu haien ametsak, bilaketa eta beldurrak.
Beraien bidera irteten zara, kezka guztien erdian
eta beren bihotzetan egiazko bizitza baten desira pizten duzu.
Lagunduiezu bizitza eskeintzeko beldurrik ez izaten
eta zuri jarraitzea betetasun-bidea dela ikus dezatela.
Emaiezu zure hitzagan konfiantza izateko ausardia
eta eskuzabaltasunez erantzutearen poza.
Begiratu maitasunez Gipuzkoan erromes doan zure elizari.
Egizu oparo gure itxaronaldia.
Zure bihotzean daude dagoeneko gure biharko apaizgaiak,
gure erlijioso eta erlijiosak
eta zuk bokazio ezberdinetara deitzen dituzun guztiak.
Zaindu, indartu eta prestatu beraien baietza.
Egizu gure elkarteak gazteengandik hurbil egon daitezela,
entzuteko, laguntzeko eta proposatzeko gai den Eliza.
Bedeinka itzazu beraien familiak,
fedearen bidean bidelagun dituztenak,
eta onartzen eta eusten dieten komunitateak.
Jauna, zure nahia bada,
bidali bokazio sagaratuak eta apaizgai eskuzabalak,
egunen batean zure bihotzaren arabera artzainak izan daitezen.
Amen.